

# Udal talde politikoaren iritzia



## ESKERRIK ASKO, GETXO

Eskerrik asko azken bi hauteskundeetan EUSKO ALDERDI JELTZALEA ere bozkatu duzuen getxoztar guztioi. Eskerrik asko berriz ere guran konfiantza jarri duzuen milaka pertsoneri, izugarri garrantzitsua baita.

Bai apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan, bai aurreko asteko Europako Parlamenturako hauteskundeetan, berretsi ditugu EAJ ezaugarritzen duten konpromisoak, zorroztasuna eta erantzukizuna, betiere Euskadiko interesen alde. "Indar berria" hauteskundeko goiburuean aritu gara oraingoan. Indar berriak, pertsona berriak eta Eusko Alderdi Jeltzalearen 128 urteko ibilbideak barne hartzen duen historia.

Getxon ere, aurrera egiten jarraitzen dugu, milaka pertsonaren konfiantza-



ri esker, duela urtebete getxoztarrekin hartutako konpromisoak eta agindutako proiektuak eta ekintzak gauzatzeko aldera. Gure herritarrak entzuten eta helarazten dizkiguten beharizan eta kezkei erantzuten jarraitzen dugu. Batzuetan nahiko genukeena baino astiroago, baina bagabiltza!

Azkenik, Bidezabalgo arrapalak berri-  
tzeko izapideak hasi ditzakegu, hiletan

geldi egon ostean. Gune horretan bizi diren auzokide askok irisgarritasunari eta mugikortasunari dagokienez duten beharizana da; izapidetzen hasi gara jada eta, denbora beharko badu ere, zorronez argia ikusiko du proiektuak.

Arenen, igogailu berriaren ondoan, jolas-parkea eraikitzearen prozesua ere hasi genuen; igogailua martxan dago jada, eta errazten du Hezetasuna auzoko inguru

horretatik Algortako erdigunera igotzea. Txokeren espazio ezaguna izan zen San Nikolas kaleko 23. zenbakian dagoen eraikinari buruzko iritzia jasotzeko prozesuan murgilduta gaude; halaber, besteak beste, honako proiektu hauek dira aipatzekoak: Fadurako antzinako garagardotegia, Gobela nahiz Bolueko futbol-zelaiak eta Fadurako erabilera anitzeko zelaia berritzea; eta hiri atsegin eta jasangarriaren prozesuan Areetan egingo diren proiektuak.

EAJko betiko konpromisoa da oraingo Getxo hobetzea etorkizuneko Getxo hobetu dadin. Eskerrik asko egunero-egunero Getxoko Eusko Alderdi Jeltzalearen konfiantza jartzen duzuen gizon eta emakumeoi, daukagun onena eskaintzen dizuegu.

ESKERRIK ASKO!



## EREAGA INGURUAN APARKALEKUA ERABERRITZEA

Pandemiaren harira eta udalak aurretik eskaera baztertu ostean, Getxoko PPK hala eskatuta, zirkulazio-noranzkoa aldatu zen Kirol Portuaren eta Tamarises jatetxeko biribilgunearen artean. Hasierako kezka gorabehera, LEBER enpresak esandakoaren arabera, aldaketak ez zituen aurreikusitako arazoak eragin. Alabaina, nabarmena da Areetarako norabidean doan zirkulazio-fluxua aldatu ondoren bidegorriaren ondoan oraindik dagoela espazio bat hutsik, getxoztarrek erabili ohi ez dutena.

PPko kideok uste dugu garrantzitsua

dela erabileraren bat ematea hutsik dagoen espazioari eta, horretarako, proposatzen dugu orain ezkerrean, Tamariseserako norabidean, dagoen ilarako aparkalekua zeharka aparkatzeko aparkaleku bihurtzea, bai eta bertan ibilgailu elektrikoentzako kargaguneak jartzea ere. Partzela-kopurua ere areagotuko litzateke: gaur egun 72 daude eta 144 izango genituzke. Horrez gain, espaloien eta errepidearen artean dagoen espazioa zabala izateak ahalbidetuko luke auto-ilararik ez sortzea Erea-ga hondartzatik irtetea, eta ibilgailuen fluxua ere lagunduko luke.



## ehbildu

## LOREZAINZAKO LANGILEAK BORROKAN

70 egun baino gehiago daramatzate greban gure herriko lorezaintza zerbitzuko langileek. Bi hilabete luze daramatzate beraien egoera salatzen, bai kalean bai udalean. Nabarmena da kalean greban daudela, azkenaldian lorategi eta belardiak handituta ikusten ditugu eta denon ahotan dago. Baina zein izan da denbora tarte luze honetan langileek udal gobernutik jaso duten erantzuna? Hutsaren hurrena. Langileak bi ple-notara bertaratu dira udal gobernuari eskatzeko gatazka honetan inplikatu dadila, enpresak ez zuelako langileekin hitz egin nahi. Baina udal gobernuak ez

da kontaktuan jarri langileekin; egin duten gauza bakarra izan da "desiratzea egoera konpontzea", literalki.

Kontratua esleitu zenetik zegoen gaizki, ez baitzuten bermatzen ezta langileen baldintzak ezta zerbitzua bera ere. Hasiera hasieratik ez zen aurreikusten langileen soldatak urtez urte eguneratzea.

Udalak egungo egoeraren gainean ardurara osoa dauka, honek diseinatzen baititu lehiaketak, baldintza teknikoak idatzi, baldintza ekonomikoak ezarri eta udala da kontratua esleitzen duena

baldintza ekonomiko jakin batzuetan oinarrituta. Hau guztia ez bada behar den bezala egiten egoerak gaur egungo eszenatokira eramaten gaitu eta beti bezala langileen kalterako, langileak prekarizatuz. Kontratu hau, udal gobernu honek daukan kudeaketa txarraren adibidea da, baina tamalez, ez da kasu isolatua.

Zerbitzu publikoen kudeaketa enpresa pribatuen esku uzteak eragiten duena da zerbitzuaren kalitatea jaistea, langileen eta herritarren kalterako, enpresa hauen helburu nagusia euren irabaziak

maximizatzea delako.

Erakunde publiko eta enpresa pribatuen arteko elkarlana egon behar dela uste dugu, baina elkarlan hori ezin da izan udalarenak diren ardurak enpresa pribatuen eskuetan uztea eta inolako jarraipenik ez egitea. Edozein zerbitzu publikoren gainean irizpide eta kudeaketa publikoak egon behar dira.

Horregatik guztiagatik, gobernu taldeari eskatzen diogu ardurarekin jokatu dezala eta egin dezala bere eskuan dagoen guztia arazo konpontzeko.



## ESKERRIK ASKO! 6.904 BOTO GETXON

PSOEek jarraituko du utraeskuina eusteko diki gisa aritzen, European ere bai. **Mila esker** Europako hauteskunde hauetan alderdi sozialistarengan konfiantza jarri duten **herritar guztiei**. **Emaitza bikaina lortu dugu Getxon: botoen ia % 20 lortu dugu eta bost puntu igo dugu** 2019ko hauteskundeekin alderatuta. Ezkerrari bozkatzeko erabaki dute herritarrek **politika progresistek lidergoan jarraitu dezaten**, European ere, non PSOE talderik handiena izango baita Europako talde sozialistaren baitan.

**Garaipena ukitu dugu Euskadin:** 225.000 boto baino gehiago

lortu ditugu; hala, zazpi puntu igo ditugu botoak (% 25,9) eta **lehenengo indarra izan gara hiru hiriburuetan**. EAEn irabaztetik 0,3 puntura geratu gara.

Gure hogei diputatu sozialistek lan egingo dute **Europa soziala eraikitze aldera, agenda berdearekin, giza eskubideen defentsarekin eta bakearekin konprometitu dagoena**. PSOEek bere botoak baliatuko ditu; inork ez gaitzala kontuan izan European gobernantza ultraeskuindarra osatzeko ekuzioan.



## IBAI-AZPIARI EZ

Ekainaren 16an (larunbata), 19:00etan, Xake plazan mobilizatuko gara ibai azpiko tunela ez dugula nahi adierazteko. Udalak Aste Berdea ospatu bitartean, alde batera utzi dira obra faraonikoen eragina jasango duten herritarrak eta ikastetxeak. EAJ estiloaren adierazpenik argiena. Tunelak trafikoko gehiago eragingo du, eta horrek galarriziko digu garraio jasangarriagoa lortzea. Guztion artean geldituko dugu.